

GRAMATIKA BATZORDEAREN IRIZPENA «GALDEGAIA ETA DEFINIZIO-TRIBUZIOAK» KONTSULTARI BURUZ

Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak, 2005eko irailaren 16ko ohiko bilera, aztergai izan du honako izenburua duen testua: *Galdegai eta definizio-tribuzioak: kontsulta Euskaltzaindiari*. Jagonet zerbitzuaren bidez iritsi da kontsulta, eta ondoko erakunde, zerbitzu eta enpresetako arduradunek sinatua etorri da: IZO, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, EHUko Euskara Zerbitzua, Nafarroako Parlamentuko itzulpen zerbitzua, Elhuyar eta *Berria* egunkaria.

Galderan planteatzen zaigun auziaz luze eztabaidatu ondoren, honela laburbilduko genuke gure iritzia:

- Galdegaiaren kasuan, Gramatika batzordeak argi du badela arau orokor bat, baina, horrekin batera, baita arau hori aplikatzeko malgutasun bat ere. Horrekin esan nahi duguna da, erabilerak erabilera, ez dagoela zertan arauari bete-betean lotzen ez zaion adibidea arbuia edo gaitzetsi.
- Gaian murgildu nahi duenarentzat nahikoa izango ez bada ere, *EGLU I* liburukira jo dezake irakurleak, batzordeak galdegaiak idatzitakoa zer den jakiteko. Liburuki hura prestatu zenean, ordu asko igaro zituen batzordeak galdegaiaren kontua aztertzen eta eztabaidatzen, baina behar-bada ez genuen euskararen erabiltzaile askok behar adina zehaztapen eta gomendio egin. Nolanahi ere, gramatikaren bertsio osatua (*EGO*) prestatzen dugunean, ausartagoak izango garela uste dugu, eta konpromisoa hartzen dugu gai hau xeheki aztertzeko eta beharrezko ikusten ditugun gomendio zehatzagoak emateko.
- Gaur gaurkoz, alabaina, iruditzen zaigu Gramatika batzordeak ezin eman dezakeela iritzirik, eta gutxiago eredu horietako bat hobetsi eta besteak bigarren maila batean utzi. Izan ere, gramatikaren ikuspegitik begiratuta, ez dugu eragozpenik ikusten galderan agertzen diren perpausak erabiltzeko.

Pragmatikaren aldetik, horietako zein perpausok funtzionatzen duen hobekien eta zein nagusitzen den, geroak esango du; itzultzaileen eta testu akademikoen egileen erabilerak erakutsiko du etorkizunean –hala uste dugu– zein moldek egiten duen bidea eta zein geratzen den bide bazterrean. Hori izango da erabakigarria, molde horien artean definitzioak emateko zein nagusituko den jakiteko.

- Azkenik, honako ohar hauek gaineratu nahi genituzke:
 - Bereizketa garbia egin behar dela iruditzen zaigu definizioen eta gainerako atribuzioen artean.
 - Ongi bereizi behar da, halaber, zein den definizioa eta zein den definigaia.
 - Definizioek nolabaiteko marka bat behar dute, testuaren hartzailea jakinaren gainean uzteko definizio baten aurrean dagoela: elementu katarforikoren bat, bi puntuak, entonazio berezia ahozko jardunean, eta abar.
- Eskaera bat ere egin nahi dizuegu galdera egin diguzuenoi: jakinaren gainean gaudenez gero galdegaiaren auziei buruzko adibide asko eztabaidatzen dituzuela eta adibide zerrendak badituzuela, biziki estimatuko genizueke galdegaiaren inguruko kezken (eta adibideen) zerrenda bat bidaliko bazenigute. Gramatikaren bertsio osatua prestatzeko lagungarri izango zaigulakoan egiten dizuegu eskaera hau.

Gasteizen, 2005eko urriaren 7an.

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea